



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2017/03/29

Bizkaiko Foru Aldundia plusbalioaren gaineko zergaren arauzko aldaketea dabil aztertzen gainerako lurraldeakaz

Bizkaiko Foru Aldundia plusbalioaren gaineko beste zerga bat prestetako aukerea dabil aztertzen, Epaitegi Konstituzionalak (TC) Gipuzkoako eta Arabako arautegiko hainbat artikuluko balio barik itzi ostean. Hori dala eta, lurralde horretako Foru Gobernuak tributu hori arautzen dauen foru arauko hainbat artikuluko aldatu behar izan ditue.

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak Gernikan egin dan kontroleko osokoa gaur adierazo dauenez, Aldundien asmoen barruan ez dago dekretu bidezko aldaketa partziala egiterik Uri Izaerako Lurren balioaren hazkundearen gaineko Zergaren inguruko Bizkaiko 8/1989 foru Arauan –beste lurralde biek Gobernu Kontseiluan atzo bertan onartu eben moduan–, Tributuen Koordinazio Organuaren (OCT) barruan egiten ari dan eztabaidea amaitu ostean. Organu horretan hiru foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta Eudel dagoz. “Zer edo zer ekarri eta barriro aldatu behar baino askoz hobea da zergadunentzat segurtasun juridiko handiagoa izango dauen zer edo zer ekartea”, adierazo dau.

TCak adierazo eban ez dala legezkoa plusbalioaren gaineko zerga kobretia “irabazi ekonomikorik gertatu ez danean”, Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzarkideak gogorarazo dauenez. Gai horren inguruko itauna egin deutso Aldundiari, Gipuzkoako eta Arabako zergadunen salaketak argitu dituan epaia ezagutu ostean. Aldecoak gogorarazo dauenez, zerga horrek “50 milioi euro inguru batzen ditu Euskadin urtero”.

Iruarrizagak azaldu dauenez, Bizkaiak ez dauka beste lurralde biek daukien “preminea”, ez dalako emon “prezeptuak konstituzinoaren kontra dagozala” adierazoten dauen ezelango epairik, Araban eta Gipuzkoan gertatu dan moduan, eta, gainera, Aldundiak dakienez, ez dalako ezelango helegiterik aurkeztu Bizkaiko udalen batek bideratu dauen tributu horren likidazioaren baten kontra.

Aldecoak adierazo dauenez, Epaitegi Konstituzionalaren epaiak Bizkaiko arauan “berehalako eragin juridikorik” ez daukan arren, badago “eragin politiko” bat. Hori dala eta, eskaria egin deutso Aldundiari, OCT erakundeko eztabaidea amaitu arte, arautegiaren aldaketea bultzatu daian, Arabak eta Gipuzkoak egin daben “antzera”, “bidebakokeriarik ez sortzeko” eta Bizkaiko herritarrek “arabarrek edo gipuzkoarrek daukien tratu bera euki daien”.

Ogasuneko diputatuak esan dauenez, Arabako eta Gipuzkoako Aldundiek “aldaketak sartu behar izan ditue, artikuluko jakin batzuk baliobakotu egin diralako”, baina Bizkaiak holangorik egingo baleu, “balio barik itzi ez diran artikuluko aldatu egingo leukez, eta hori ez da konponbidea”. Dana dala, plusbalioak “azterketa sakona behar dauela”, eta Euskadiko administrazio guztiak “horretaz jabetuta” dagozala esan dau. Hori dala eta, OCT erakundearen barruan zerga hori aztertzeko eta bidezkoak diran aldaketak proponiduteko dabilz beharrean. Adierazo dauenez, testu arauemoilea euki eta segiduan “eroango da Batzarretara”, bertan onesteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

764 PERTSONA ARNAS EGOERAN ASTEBURUETAN

“764 pertsona” izan dira igaz, mendekotasuna daukien pertsonentzako eguneko zentroak asteburuetan edegiteko zerbitzua erabili dabenak, Bizkaiko hiru egoitzatan aurrera eroan dan proiektu pilotuan. Helburua, edegite horregaz bat egiteko proposamena “aurton bertan halan gura daben egoitza guztietara” zabaltzea da, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuak PPK egindako galderari emondako erantzunean jakinarazo dauenez.

Zerbitzu hori, aste barruan euren etxeetan karga handia daukien eta arnasaldia behar daben pertsona zaintzaile askorengan pentsauz planteau da. Foru Aldundiak proba pilotua hasi eban 2016an Durangoko, Txurdinagako eta Zamudioko egoitzatan, aurton “zabaldu” gura dauen eredu finkatzeko asmoz, igaz egindako proba “arrakastaz” gauzatu zala ikusi eta gero.

Zerbitzu horren ezarpenak “doikuntzak” eskatzen ditu “Arretarako Norbanakoen Planetan”, eta baita aldaketak programa informatikoetan be, modalidade barri hori Bizkaian dagozan 15.000 pertsona zaintzaileei zerbitzua emoteko gai izan daiten. PP taldeko Eduardo Andresek adierazo dauenez, Aldundiaren konpromisoa, hobekuntza hori Bizkaiko “52 egoitzatan” “2017ko urtarrilaren 1etik aurrera” sartzen hastea zan.

DURANGOKO BULEGOAREN BALORAZINO “POSITIBOA”

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak, zemendian Durangon zabaldu zan eskualdeko lehenengo bulegoaren balorazino “positiboa” egun dau, “proba pilotua dala kontuan izanda”.

EH Bilduren erantzun-eskeari erantzun deutson Bengoetxeak azpimarratu dauenez, funtzionetan emon dituan lehenengo lau hilebeteetan –martiaren 16ko datuakaz– bulegoak “12.714 kasu” kudeatu ditu. Horreetatik “%58” arreta orokorrekoak izan dira (Laguntza), eta gainerakoak Ogasun eta Nekazaritza Sailetako beharginek bideratu ebezan.

Aldundiaren asmoa arreta emoteko orduan erantzuna hobetzea da, aurretiazko hitzordua sartuta eta, gainera, arreta orokor “balioanitza” sartuta apiriletik aurrera. Bengoetxeak azaldu dauenez, itxaron beharreko denporea “4,28 minutukoa” izan da gai orokorretan, eta “12,23 minutukoa” gai espezializauagoetan.

11 AUTOBUS HIBRIDO ESKURATU DIRA

Vicente Reyes Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuak, bere aldetik, 2018. urtea amaitu aurretik, Aldundia Bizkaibuseko flotan hamaika autobus hibrido gehitzea dabilela aztertzen adierazo dau. Holan, gaur egun dagozan 8etatik 19ra pasauko litzatekez, eta horreei, daborduko flotan dagozan “full electric” ibilgailu biak gehitu behar jakez.

Reyesek holan erantzun deutso Podemos Bizkaia taldeak garraio publikoan, “epe laburrean eta luzean” erregai ez fosilen erabilerearen inguruan egin deutan galdereari.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bere erantzunean, Reyesek esan dau Aldundiak ibilgailu jasangarrien inguruko Europako arautegia beteten dauela, “Europaren eskakizuna ehuneko 25 puntutan hobetuz”, Euro 6 estandarraren arabera sailkatuta dagozan unidadeetan. Gaur egun, “161 autobusek” beteten dabe Europako arautegi hori, hau da, Bizkaibuseko flotaren “%48ak”.

GENERO ERAGINAREN INGURUKO 571 TXOSTEN

Bizkaiko Foru Aldundiak, “370” beharginen inplikazioaren bitartez, “Generoaren Eraginaren inguruko 571 txosten” egin ditu 2013tik, Teresa Laespada foru diputatuak Batzar Nagusien aurrean adierazo dauenez. EH Bilduri erantzunez, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako saileko arduradunak kopuru hori “altua” eta Foru Gobernuak apliketan dituan bardintasunaren aldeko politiken barruan “beste tresna bat” dala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
29/03/2017

La Diputación de Bizkaia estudia con el resto de territorios una modificación normativa del impuesto de plusvalía

La Diputación foral de Bizkaia está estudiando la elaboración de un nuevo impuesto de plusvalía, después de que el Tribunal Constitucional (TC) haya anulado varios artículos de la normativa de Gipuzkoa y Araba, lo que ha obligado a los Gobiernos forales de estos territorios a modificar varios artículos de la norma foral que regula este tributo.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha afirmado hoy, en el pleno de control celebrado en Gernika, que la Diputación no se plantea hacer una modificación parcial mediante decreto –como aprobaron ayer mismo los otros dos territorios en Consejo de Gobierno- en la Norma Foral 8/1989 de Bizkaia del Impuesto sobre el incremento del valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana hasta que no concluya el debate que se está realizando en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria (OCT), en donde están presentes las tres Diputaciones, el Gobierno Vasco y Eudel. "Antes de traer nada para volver a tener que cambiarlo, es mucho mejor traer algo con más seguridad jurídica para los contribuyentes", ha considerado.

El TC determinó que no es legal cobrar el impuesto de plusvalía "cuando no se ha producido una ganancia económica", según ha recordado el apoderado del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, quien ha interpelado a la Diputación por esta cuestión a raíz de conocerse la sentencia, que venía a resolver denuncias de contribuyentes en Gipuzkoa y Araba. Aldecoa ha recordado que este impuesto "recauda cada año en Euskadi alrededor de 50 millones de euros".

Iruarrizaga ha explicado que, en Bizkaia, no se da "la urgencia" que en estos dos territorios ya que no se ha dictado ninguna sentencia que declare "la inconstitucionalidad de los preceptos" de forma similar a lo ocurrido en Álava y Gipuzkoa, ni tampoco tiene la Diputación "noticia" de que se haya presentado algún recurso contra la liquidación de este tributo girado por algún ayuntamiento vizcaíno.

Aldecoa ha señalado que, pese a que la sentencia del Constitucional no tiene "efecto jurídico inmediato" sobre la norma vizcaína, sí hay un "efecto político". Por ello, ha pedido a la Diputación que, hasta que concluya el debate en el OCT, promueva una modificación de la normativa de forma "similar" a lo realizado por Álava y Gipuzkoa para "no crear injusticias" y que la ciudadanía vizcaína pueda tener "el mismo trato que cualquier alavés o guipuzcoano".

El diputado de Hacienda ha advertido de que, mientras que las diputaciones de Álava y Gipuzkoa han tenido que "actuar porque determinados artículos han sido anulados" en su normativa, si Bizkaia lo hiciera, estaría modificando "artículos que no han sido derogados, y eso no es la solución". No obstante ha afirmado que la plusvalía debe ser "objeto de una revisión profunda" y todas las administraciones vascas son "conscientes" de ello, por lo que trabajan en el seno del OCT para revisar este impuesto y proponer las modificaciones oportunas. Según ha indicado, una vez se cuente con un texto normativo, "se trasladará a las Juntas" para su aprobación.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

764 PERSONAS SE ACOGEN AL PROGRAMA RESPIRO LOS FINES DE SEMANA

Un total de “764 personas” han utilizado durante el pasado año el servicio de apertura en fines de semana de centros de día para personas dependientes que se ha desarrollado como proyecto piloto en tres centros de Bizkaia. El objetivo es realizar una propuesta de adhesión a esta apertura “a todos los centros que lo deseen este año”, según ha informado la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, en una respuesta a pregunta del PP.

Este nuevo servicio se plantea pensando en las muchas personas cuidadoras que tienen una gran sobrecarga durante la semana en sus casas y necesitan un respiro. La Diputación inició en 2016 una prueba piloto en los centros de Durango, Txurdinaga y Zamudio con el fin de consolidar un modelo que la institución foral quiere “generalizar” a lo largo de este año, una vez que la prueba se ha desarrollado “exitosamente”.

Su implantación completa requiere “ajustes en los Planes Individuales de Atención” y cambios en los programas informáticos, para que esta nueva modalidad pueda dar servicio a las 15.000 personas cuidadoras existentes en Bizkaia. Eduardo Andres, del PP, ha manifestado que el “compromiso” de la Diputación para incorporar esta mejora en los “52 centros” de Bizkaia era comenzar “desde el 1 de enero de 2017”.

VALORACIÓN “POSITIVA” DE LA OFICINA DE DURANGO

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha realizado una valoración “positiva” de la primera oficina comarcal abierta en Durango en noviembre “entendiendo que se trata de una prueba piloto”.

Bengoetxea, que respondía a una pregunta de EH Bildu, ha destacado que en los primeros cuatro meses de funcionamiento –con datos hasta el 16 de marzo- la oficina ha gestionado “12.714 casos”, de los cuales el “58%” se dirigieron a atención general (Laguntza) y el resto fueron resueltos por personal de los departamentos de Hacienda y Agricultura.

La idea de la Diputación es mejorar la respuesta en la atención con la incorporación de la cita previa, así como incorporando una atención general “polivalente” a partir de abril. Bengoetxea ha explicado que el tiempo de espera se ha situado en los “4,28 minutos” para las cuestiones más generales y en los “12,23 minutos” para asuntos más especializados.

INCORPORACIÓN DE 11 AUTOBUSES HÍBRIDOS

Por su parte, el diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión Territorial, Vicente Reyes, ha anunciado que la Diputación estudia incorporar a la flota de Bizkaibus antes de que termine el 2018, once autobuses híbridos, de tal forma que se pase de los 8 actuales a 19, y a los que se suman dos vehículos “full electric” ya existentes.

Reyes ha respondido así al grupo Podemos Bizkaia que le preguntaba por las medidas que tenía pensado llevar a cabo la Diputación “en el corto y largo plazo” para el uso de combustibles no fósiles en el transporte público.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En su contestación, Reyes ha asegurado que la Diputación cumple la normativa europea en materia de vehículos sostenibles, “mejorando en 25 puntos porcentuales la exigencia europea” en aquellas unidades calificadas bajo el estándar Euro 6. Actualmente “161 autobuses” cumplen esta normativa europea, lo que representa el “48%” de la flota de Bizkaibus.

571 INFORMES DE IMPACTO DE GÉNERO

La Diputación de Bizkaia, a través de la implicación de “370” empleados y empleadas forales, ha elaborado “571 informes de impacto de género” desde el año 2013, según ha trasladado a la Cámara vizcaína la diputada foral Teresa Laespada. En respuesta a EH Bildu, la responsable del área de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación, ha asegurado que esta cifra es “elevada” y supone “una herramienta más” dentro de las políticas de igualdad que viene aplicando el Gobierno foral.